*Erref.: A.R.G./ Goi-mailako teknikaria*
*Proposamena: Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko Burua*

**<u>GAIA</u>.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegian 90/2013 prozedura laburtuaren bidez garatutakoa. Amalia Rodríguez Torrealday andreak sustatu du honako honen aurka: "GUFEren 2012/05/07ko erabakia, 2010eko EPEari dagokion zerbitzarien eta garbitzaileen lanpostuak hornitzeko oposizio-lehiaketaren Kalifikazio Epaimahaiaren 2012/03/12ko erabakiaren aurka aurkeztu den gora jotzeko errekurtsoa gaitzesten duena; azken horren bidez, aurkeztutako merezimenduen balorazioaren berrikuspena gaitzesten zen."**

***Gerente jauna:***

**HONAKO HAUEK GERTATURIK:**

**LEHENENGOA.-** 2012/07/16an Amalia Rodríguez Torrealday andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen goian aipatu den administrazio-jarduketaren aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta bertan 654/2012 prozedura arrunt gisa erregistratu zen.

**BIGARRENA.-** 2013ko maiatzaren 14an, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegiak dekretua eman du. Horren bidez, autoaren xedapen-atalean ezarri du epaitegi horrek eskumena duela Amalia Rodríguez Torrealday andreak aipatutako administrazio-jarduketaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezagutzeko.

*Ref.: A.R.G./ Técnico Superior*
*Propuesta: Jefatura de Área de Selección y Provisión*

**<u>ASUNTO</u>.- Recurso Contencioso-Administrativo seguido por el Procedimiento Abreviado nº 90/2013 en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 6 de Bilbao promovido por Amalia Rodríguez Torrealday, contra el "acuerdo de 07/05/2012 del IFAS desestimatoria del recurso de alzada interpuesto contra acuerdo de 12/03/2012 del tribunal calificador del concurso-oposición para la provisión de plazas y puestos de camarero/a-limpiador/a correspondiente a la OPE 2010 por el que se desestima la revisión de la valoración de méritos presentados."**

***Señor Gerente:***

**RESULTANDO.-** Que con fecha 16/07/2012, Dña. Amalia Rodríguez Torrealday interpuso recurso contencioso-administrativo contra la actuación administrativa arriba referenciada ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, donde se registró como procedimiento ordinario 654/2012.

**RESULTANDO.-** Que con fecha 14 de mayo de 2013, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº6 de Bilbao ha dictado decreto por el cual establece en la parte dispositiva del auto la estimación del citado juzgado como competente para conocer el recurso contencioso-administrativo interpuesto por Dña. Amalia Rodríguez Torrealday contra la actuación administrativa arriba referenciada.

**OINARRI JURIDIKOAK-** Gai honen inguruko ezagupena ematea gerenteari dagokiola, zenbait eginkizun eskuordetzeari buruzko Gobernu Batzaren 2008ko otsailaren 28ko ebazpenaren arabera, ondoren gaia Gobernu Batzara bidal badaiteke ere.

Ondorioz, hau sinatzen duenak ebazpen-proposamen hau aurkezten dizu, aztertu eta onar dezazun:

**CONSIDERANDO.-** Que la competencia para conocer de este asunto corresponde al Sr. Gerente, en virtud de Resolución del Presidente de la Junta de Gobierno de fecha 28 de febrero de 2008, de delegación de determinadas funciones, sin perjuicio de su posterior traslado a la Junta de Gobierno.

En consecuencia, quien suscribe somete a su consideración para su adopción la siguiente

## EBAZPEN-PROPOSAMENA

**Lehenengoa.-** Errekurtso honetan interesatuta dauden hirugarrenei, hau da, lanpostua eskuratu zuten langileei eta GUFEn (2010eko EPE) gauzatutako zerbitzarien eta garbitzaileen hautaketa-prozesuaren ondoriozko lan-poltsetako kideei deitzea, bulego orokorretako iragarki-oholean, zentroetako iragarki-oholean eta GUFEren webgunean argitaratuz, bederatzi eguneko epean ager daitezen Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegian 90/2013 prozedura laburtuaren bidez garatzen den administrazioarekiko auzi-errekurtsoan. Errekurtso hori Amalia Rodríguez Torrealday andreak sustatu du, honako hauek aurka: "GUFEren 2012/05/07ko erabakia, 2010eko EPEari dagokion zerbitzarien eta garbitzaileen lanpostuak hornitzeko oposizio-lehiaketaren Kalifikazio Epaimahaiaren 2012/03/12ko erabakiaren aurka aurkeztu den gora jotzeko errekurtsoa gaitzesten duena; azken horren bidez, aurkeztutako merezimenduen balorazioaren berrikuspena gaitzesten zen."

## PROPUESTA DE RESOLUCION

**Primero.-** Emplácese a los terceros interesados en el presente recurso, a saber, personal que obtuvo plaza así como integrantes de bolsas resultante de proceso selectivo de camareras limpiadoras llevado a cabo en el IFAS (OPE 2010), mediante la oportuna publicación en en el Tablón de Anuncios de las oficinas centrales, Tablón de Anuncios de los centros y en la Página Web del IFAS, para su general conocimiento, a fin de que puedan comparecer y personarse en el plazo de nueve días, en el recurso Contencioso-Administrativo seguido por el Procedimiento Abreviado nº 90/2013 en el Juzgado de lo Contencioso-Admnistrativo nº 6 de Bilbao promovido por Dña. Amalia Rodríguez Torrealday, contra el "acuerdo de 07/05/2012 del IFAS desestimatoria del recurso de alzada interpuesto contra acuerdo de 12/03/2012 del tribunal calificador del concurso-oposición para la provisión de plazas y puestos de camarero/a-limpiador/a correspondiente a la OPE 2010 por el que se desestima la revisión de la valoración de méritos presentados." .

**Bigarrena.**- Ebazpen hau Aukeraketa eta Hornikuntza Ataleko buruari eta Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko Administrazio Kudeaketako buruari helaraztea, jakin dezaten eta ondorio guztietarako.

**Segundo**.- Dar traslado de la presente Resolución a la Jefatura de Área de Selección y Provisión así como a la Jefatura de Área de Gestión Administrativa del Departamento de Dirección de Personas para su oportuno conocimiento y efectos.

Bilbon, 2013ko maiatzaren 27an

En Bilbao, a 27 de mayo de 2013

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO BURUA/
LA JEFA DE AREA DE SELECCIÓN Y PROVISIÓN

Sin./Fdo.: Mª Yolanda Llama López

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA
INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL

*GUFEko gerentearen 2013ko maiatzaren 27ko EBAZPENA/*

RESOLUCION de fecha 27 de mayo de 2013 del Sr. Gerente del IFAS

*Aurreko proposamena ikusi ondoren, osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi./*

Vista la anterior propuesta se acepta en su integridad. Cumpliméntese.

Sin./Fdo.: Jon Etxebarria Orue